



ESKOLA- AGENDA 21- I. FOROA

Tokia: 2006/01/31 arratsaldeko 17:30tan Zelaieta Zentruko Margolaritza gelan

PARTE HARTZAILEAK

Udaletxetik:

- David Latxaga. Alkatea
- Javier Atxurra. Ingurumeneko zinegotzia.
- Josu Perea. Udal ingeniaria.
- Jone Etxebarria. Tokiko Agenda 21eko teknikaria.

Eskoletatik: Zentru bakoitzetik:

- 6 ume
- Koordinatzaileak: Karmele Ansotegi, Maria Salcedo, Iñaki Malaxetxebarria eta Aitor.
- Irakasle bana.
- Guraso bana.

GAI ORDENA

1.- David Latxaga alkateak Foroari ongi etorria emon deutso. Eskolako Agenda 21ean lanean ari diran ikstetxeei, herri mailan garatzen ari dan Tokiko Agenda 21aren barri emon deutse eta bertan parte hartzera gonbidatu dauz. Foroaren helburuak aurkeztu dira:

- Prozesua martxan jartzea. Abenduan sinatutako konpromisoari ofizialtasuna emon.
- Partaideen aurkezpena: Udaletxeko ordezkariak
Ikastetxeetako Koordinatzaileak: Karmele, Maria, Iñaki eta Aitor.
- Koordinatzaileek euren asmoak eta batzarrera etorritako ordezkariak aurkezteko sarrera egin.

2.- Karmele Ansotegik koordinatzaileen izenean sarrera labur bat egin dau.

Ikastetxeek 3 arlotan bereizten dabe prozesu honen garapena: Ingurumena beraren azterketan, hezkuntzaren garapenean eta partaidetzaren sustapenean. Ikastetxeek, era berean, euren konpromezua berretsi dabe. Gai comuna hondakinak dira eta honen inguruan Diagnostikoa, Ekintza Plana eta Ebaluaketa burutuko da. Prozesu honen amaieran, herri mailako egoera aztertuta, ekainean proposamen zehatzekin elkartuko gara barriro ere foro honetan.

3.- David Latxagak erantzuna: Konpromisoaren onarpena eta hurrengo Foroa ospatzeko konpromezua onartu dau. Eskolako Agenda 21aren Foroaren protagonista nagusiak umeak izanda euren parte hartzerako sarrera egin eta euren galderak hasten dira

4.- Umeen partaidetza- Elkarrizketa: Galderen ordena:

- Lauaxe Ikastolako umeak

1. Zarataren kutsadura ere badala esan deuskue. Zer egiten dozue edo zelan kontrolatzen da kutsadura mota hau?

Josu Perek, udal teknikariak, momentu honetan, udalerrri mailan zaraten inguruko azterketa bat egiten ari dala azaltzen dau. Neurketak egiteko aparato berezi batzuk dagoz eta leku ezberdinetan neurketak eginez udalerrri mailako zaraten mapa egingo da. Zaratak altuak diran lekuetan beronen eragina murrizteko ekintzak burutu beharko dira.



2. Zornotzako lantegiek asko kutsatzen dabe?
Udaletxeko ordezkarien hitzetan, Zornotzan lantegi asko dago eta euren artean ezaugarri ezberdineko lantegiak aurkitu daikeguz. Industri mota bakoitzak prozesu ezberdina jarraitu eta hondakin ezberdinak sortzen dauz. Ezin daiteke herrian dagozan industria guztiak maila berean konparatu baina dana dala danak legea betearazi dagien ahalegintzen da udaletxea.
 3. Nondik lortzen dau Zornotzak elektrizitatea?
Elektrizitatearen banaketa sistema orokor baten barruan egiten da. Elektrizitatea era ezberdinez bidez sortu daiteke: Central Termikoa, Ikatzezko zentralak, zentral hidraulikoak, eguzki plakak, aerogeneradoreak... Guzti honeetatik sortzen dan elektrizitatea sare orokor bakar batera isurtzen da eta elektrizitatea erabili egiten dogunean, erabiltzailaeok sare orokor horretatik hartzen dogu, beraz, ezinezkoa da zein dan zehatz mehatz erabiltzen ari garen elektrizitatearen ekoizpen puntua.
 4. Airearen kutsaduraren barri izan dogu. Zein da kutsadura horren arrazoa?
Zornotzan airearen kalitatea aztertzeko 3 kabina daukaguz. Bata Larran, beste bat Zelaieta parkean eta azken bat Montorran. Orain dala gitxi agertu dan albistean gure herriko airearen kalitatea txarra dala agertu da. Albistea baina hobetu azaldu beharra dago. Herrian kokaturiko 3 kabinetatik airearen kalitatea Zelaieta parkean kokaturikoan bakarrik emon dau txarra. Larra eta Montorraneko emaitzak onak izan dira. Zelaietako emaitzei begiratuz, aztertutako konposatuen artean legearen limiteak gainditzen dauazan parametro bakarra partikulena da. Paartikulak airean dagoan hauts kopurua neurtzen dau. Hauts horren eragile nagusia trafikoa da, kotxe, kamioi eta autobusek eragindakoa. Gainera datuen jarraipena eginda, partikulen zenbakia altuek trafiko altua dagoan momentuekin bat egiten dabe.
 5. Zenbat ur gastatzen dogu herrian? (Bolumen totalak, gitxi gorabeherakoak)
Egunean kontsumitzen dan ur kantitatea egun eta biztanleko 220 litro inguruan kokatzen da. Datu honeek orokorrak dira, kontsumoen azterketetatik egindako estimazio bat. Gure herrian, datu zehatz moduan batazbeste 100 litro/segundu gastatzen dirala badakigu.
 6. Sortzen doguzan ur zikinak garbitzeko zer egiten dau udaletxeak?
Ur zikinak barrero errekarara bota ahal izateko araztu egin behar dira. Zornotzan Astepen dagoan araztegia garbitzen dira Irak. Bertara Zornotzako etxebizitzan eta industriaren % 90 konektatuta dago. Prozesuak atal ezberdinak daukaz: lehenengo urarekin datoza zikinkerri solidoak: plastikua, paper,... hondakinak kendu; ur hori tratatamendu ezberdinetatik pasatu eta azkenean ur garbia errekarara bota.
- Larrako Eskolako umeak
1. Ingurumenaren zainketan kezka, galderak,... aurkezteko udaletxean nora joan behar gara, zer bide jarraitu behar da?
Udaletxera kezka, galderak, etab. Aurkezteko bide nagusi bi dagoz. Zuzenean aztertu nahi dan kezka udaletxean bertan aurkeztu, idatzi bat eginez, elkarrizketa bat eskatuz edota telefonoz. Edo udaletxea itxita dagoala udaltzaingoengana joan eta bertan zuen ardura aurkeztu.
 2. Zer egiten da zabortege ilegal bat dagoanean?
Zabortege ilegal baten aurrean gauza bi egiten dira. Lehenengo eta behin zabortege hori itxi egin behar da, barrero erabili ez daiten neurriak hartzen dira. Bigarrenez, bertara isurketak egin dauazana zigortu egin behar da eta sortutako kalteak ahal dan neurrian konondu egin behar dira.
 3. Zer egiten da bildutako erroparekin?
Bildutako erropa guztia batu egiten da eta lehengo eta behin erropa horren egoera zein dan aztertzen da. Arroparen ezaugarriak ikusita, erabili ahal dan erropa Hego Amerikara bialdu egiten da edo Euskal Herriko dendetara bialtzen dira. Egoera txarrean dagoan erroparekin, barriz, gauza ezberdinetarako erabili daitezkezan trapuak egiten dira.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

4. Udaletxean hondakinak bereizten dozuez?
Udaletxean papera da gehien erabiltzen dan materiala eta berau batu eta berziklatzera bialtzen da. Fotokopiagailuetako tonerrak ere batu eta berziklatu egiten dira gehienbat.
5. Zer egiten da botatzen diran jostailuekin?
Jostailuak kontenedoreren batera botaz gero, ez da inoiz gehiago berrarabilia izango. Badagoz, dana dala, kanpaina ezberdinetan jostailuak batzen dabezan alkarteak, honeek bai, beste ume batzuei jostailu horreekin jolasteko aukera emiten deutse.
6. ESKOLAKO ESKAERA: Futbol zelaiko inguruan papeleru gehiago jartzea proposatu dabe eskolako umeek.

- Karmelo Ikastetxeko umeak

1. Biztanleriaren zein portzentaik berziklatzen dau?
Datu zehatzak ez dakiguz. Baina badakigu zenbat biltzen dugun kontenedoreetan eta atera daikegu biztanleko zenbat biltzen dan.
2. Zein da hondakinek jarraitzen daben bidea?
Hondakin organikoak zabortegira edo errauztegira doaz. Edukiontzi horietan batutako ontzi eta plastikoekaz barriro material bardineko gauzak egiten dira. Batutako beirarekin ere gauza bardina gertatzen da. Paperarekin, paper berziklatua egiten da. Erropekin aurrean azaldu dogu zer egiten dan. Olioia ere berrerabili egiten da erregai moduan.
3. Zein objektuk kutsatzen dau gehien?
Gehien kutsatzen dabezan hondakinak agian pilak izan daitekez, termometroetako merkurioa ere oso kutsakorra da eta olioak ere bai.
4. Zertarako batzen dira konpresa eta tanpoiak (leku publikoetan) gero etxean hondakin horreek bereizten ez badira?
Batuketa higiene arazoak ekiditzeko egiten da. Gero hondakin honeek, hondakin organikoen bide bardina jarraitzen dabe
5. ESKOLAKO ESKAERA: Beira batzeko edukiontzia: Udaletxetik eskola barruan ezin dirala zerbitzu publiko gehiago eskeini azaltzen da, eskola bera zentru pribatu bat baita.
6. Ikastetxeetan bagagoz gai honen inguruan lan egiten. Zein da zuen asmoa datorren foroa baino lehen?
Hurrengo foroa baino lehenago, udal mailako Diagnostikoa eginda egongo da eta Ekintza Planean lanean murgilduta egongo gara, beraz, gaia aztertuta eukiko dogu eta zuen onartpenak batu ahal izango doguz Ekintza Planerako azterketaren barruan.

5.- Beste galdera edota oharrik.

Larrako eskolako ikasle batek Zentral Termikoak kutsatzen dauan galdetu dau. Udaletxetik industria gehienak kutsatu egiten dabela esan jake baina dana dala, Zentralak egunean dagoan legedia bete egiten dauala azaldu jake.

6.- Agurra datorren forora arte. Eskerrak emon eta umeak lan egiten jarraitu dagien animatu.